

noaua

**N-634 errepidea
moztu egingo dute
igande honetan**

**Batukada feminista,
emakumeen
elkargune**

**Saritu ugari Usurbil
Cup txapelketan**



**Herritarrak protagonista
Aginagako San Praixku jaietan**





serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



ALAMANDEGI JATETXEA

- Asteazkenetik eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia, familia guztiarentzat aproposa!

Tel. 943 36 28 49 egin zure erreserba!
Urbitarate kalea 1, 20160 Zubietza

OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**

egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Albiste iruditzen

Sakabanaketaren aurka



Usurbildarrek beste behin, euskal presoek sakabanaketa amaiteza exijitu dute. Euskal presoek eta euren senideen eskubideak errespetatzea eskatzeko, irailaren 26an Mikel Laboa plazan egin zen hileroko azken ostiraleko elkarretaratzean izan zen.

Laburrean

Gurasoentzat ikastaroak

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1-4ko gurasoentzako ikastaroetan, urriaren 6an amaituko da izena emateko epea. Nerea Mendizabal psikopedagogoak eskainiko ditu ikastarook. Izena emateko e-posta bat idatzi helbide honetara: hitzaho@udarregi.com

Ziortza, martxan

Aurreko astean Urdaigagan gau pasa egin ondoren, betiko martxari ekingo dio Ziortza gazte taldeak. Asteburu honetan hasiko dituzte ikasturte berriko saioak:

- Urriaren 3an: DBH 1 eta DBH 3 taldeek.
- Urriaren 10ean: DBH 2 eta 4 taldeek.

Aisialdirako dirulaguntzak

Udalak diru-laguntzak banatuko ditu, haur eta gazteen aisialdirako begirale edo zuzendari ikastaroa egiten duten ikasleen artean. Ezinbestekoa Usurbilen erroldatua egotea, 18 urtetik gora izatea eta aipatu ikastaroren bat egina izatea. Informazio gehiago Potxoenean.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noqua.com // www.noqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Arantxa Zulaika, publizitatea@noqua.com

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Arnalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

1975eko irailaren 26an, Nuarben. Amaitzera doa eguna eta iluntzen hasi du Nuarben. Artabera baserrian, auzoa zeharkatzen duen zubi ondoan, erreka bainua baino ez da entzuten. Inazio Urтуagaren etxean hoska hasi da telefonoa. Auzoan telefonoa duen bakarretakoa da. "Burgostik deitzen ari natzaizu". Angel Otaegi nuarbetarra hurrengo eguneko goizeko zortziak aldera hilko dutela. "Gauza bat, ahalik eta modu suabeenean esaiotzu bere amari".

1975eko irailaren 27an, Burgosen. Seme bakarra da Angel. Nuarbetarrek orde, ez dute bakarrik utzi Maria, Angelen ama, eta koadrila batek lagunduta iritsi da Burgosera. Mariak ezin ditu nerbioak gobernatu. Lasaigarriak eman dizkiote baina hala ere, ezin sosegatu. Semearengana eraman dute. Angelen lagunei ez diete sartzen utzi. Ez dute denbora askorik elkar agurtzeko. Mariak nahikoa lan du zutik mantentzen. Zazpi militarren begiradapean, hala esango dio se-

Memoria ariketak

meak: "ama, zu lasai ibili, eta burua tente eduki; eta ez etxean geratu, lotsatzeko arrazoirik ez daukazulako. Nik ez dut inor hil, baina ni hil egingo naute. Euskal Herriarengatik odola emango dut nik". Angel eraman dute. Fusilen hotsek urratu dute Burgosko zerua.

2014ko irailaren 27an, Nuarben. Arratsaldeak ez du agur esan nahi. Jendea batzen hasi da Artabera baserri inguruan. Han dira besteak beste, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Azpeitiko udaletxeko ordezkariak. Isiltasun ozena ari du. Pentsa, auzoa zeharkatzen duen zubi ondoan, erreka bainua baino ez da entzuten. 18:30ak direnean, Jose Luis Otamendi poetak eman dio hasiera ekitaldiari.

(...)
 behar bada izango zen
 orain gauden honetara lehenago
 ailegatzeko era
 baina ez dugu jakin nola
 berandu ibili ginen
 eta ez genuen asmatu orduan

eta errakuntza eta aukera galdu horien guztien zama bihotzean dakargula gatoz iraganak eta geroak oinordetzan laga diguten orain honekin: orain hau baino ez daukagu ... eta azkena gerta badaiteke ere ez diogu beldurrik beste porrot bati izan ere hain dugu premia handia irabazteko norbaitek noizbait zerbait irabaz dezan hemen eta hain gertu dakusagu eskueran aro hobego baten aukera elkar bana daitekeen aro baten aukera inork inor sekula zapalduko ez duena...

Kantu batek eman dio poemari segida. "Egunen batean, ametsak bezalaxe, gure eskuak ere izango dira libre". Antzekorik abestu du poetarekin batera etorri den kantariak.

Angelen senideei aureskua dantzatu die gazte batek. Lore sorta bat eman diete, eta jarraian, Nuarbeko auzo alkateak

hartu du hitza.

"(...) Angelek eta bere ama Mariak jasandako injustizia salatzen atera gara plazara. Urte guzti hauetan urtero ospatu dugu, modu batean edo bestean, afusilatua izan zen eguna, eta hilerrira bisita egiten diogu, bera oroitzeko. 39 urte hauetan gogoan izan dugu, bai, baina gure gogoetatik plazara ateratzeko ordua da. Hemen injustiziak eta sufrimenduak, arrastoa utzi dute beste hainbeste herri, auzo eta etxetan utzi duten moduan eta ez litzateke gizalegezkoa errealitate horri bizkar eman eta beste aldera begiratzea.

Hemen bildu garenok, injustizia eta sufrimendu horren aitortza eta memoria aldarrikatzen dugu. Herri batek, ezinbestekoa du bere iragana ezagutzea, eta gertatutakoa jakitea etorkizuna izango badu. Eta gaur, etorkizuna eraiki nahi dugunok, elkartu gara Nuarben. Justiziaren eta egiaren zimenduan gainean eraiki nahi dugulako, bakean eta askatasunean biziko den Nuarbeko auzo xume hau".

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Idoia Torregarai | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

Liburutegiko txokoa

Aktualitatea Sutegi Udal Liburutegian

SALÓ, Alex, Simiocracia: Crónica de la Gran Resaca Económica. Kri-siari buruzko nobela grafikoa: krisiaren arrazoiak, aurrekariak eta ondorioak; neurrigabe-ko ustelkeria; gizarte mailako atzerapausoak; gobernu "autistik"... Krisia modu ulergarri eta umoretsuan azaldua.



RODRIGUEZ, Olga, Yo muero hoy: Las revueltas en el mundo árabe. Egipto, Túnez, Libia, Siria, Bahreín eta Yemeneko azken urteetako konfliktuen azalpena eta azterketa.



VERGARA, Bernardo, Palestina: un vistazo al pasado, una mirada al presente. Palestina, lehen (historia) eta orain (gaur egun); komikia.



ALEXANDRE, Víctor, (Katalunia), Hitza hormaren kontra: independentzia ez da pribilegioa. Katalan Herria (eta Nafarroa/Euskal Herria) beste batzuen menpeko-herri bihurtarazten duen (dituzten) topiko guztiak desegiten ditu.



Liburutegia non?: Irazu 14 kalean. Sarean: Bloga, <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/jusurbil/> Twitter: @usurbib Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia App: Liburutegiak Noaua! Komunitatea, noaua.com web orrian: Sutegi Udal Liburutegia

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 10. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 6.

Trukean Txokoalden



Frontoian ipini ziren trukea egiteko postuak.

Zortzi edizioen ostean, truke-rako plaza propioa du Usurbilek; Txokoaldekoa. Truke Eguna ospatu zuten berriz, aurreko igandean. Eguraldi ezegonkorragatik, badaezpada, lehenago Erroizpe elkarte aurrean ospatu izan den hitzordua, auzoko

frontoira lekuz aldatu zuten irailaren 28an. Goizetik, truke-rako hainbat postu jarri zituzten; arropa, liburu eta bestelako hainbat objektuekin. Tratuan ikusi genituen zenbait lagun. Beste koadrilatxo bat, eguerdiko herri bazkari erraldoia prestatzen.

1973koen kinto bazkaria

Urriaren 25ean, larunbata, Atxega jau-regian. "Hamaiketakoa, bazkaria, eta etortzen dena" izango da, antolatzaileen esanetan. Izena emateko azken eguna, urriaren 17a. Apuntatzeko idatzi, otar-goxo@hotmail.com helbidera edo deitu 678 943 674 telefono zenbakira.

1972koen kinto bazkaria

Urriaren 11n, Aginaga sagardotegian bilduko dira. Izen emateko epea, irailaren 30era arte zabalik. Prezioa, 40 euro. Ordainketak kontu zenbaki honetan egin behar dira: 0182 6043 21 0201514132 (BBVA). Ordainketak egiterakoan izen abizenak adierazi. Argibide gehiagorako: 687 858 477 (Joxemi).

1955ekoen kinto afaria

Urriaren 18an Antxeta jatetxean. Izen emateko epea zabalik, urriaren 15era arte. Apuntatzeko deitu telefono zenbaki honetara: 675 717 020 (Miguel Angel).

Ika-Mika

Elkartasuna

Herriko kaleetako horman txartel bat itsatsirik dago eta hurbildu natzaio. Bertan, bi begien argazkiaren azpian esaldi hau irakurri dut: "Elkartasuna eta konpromezuaren begirada arretatsua". Sei pertsoez osatutako mahai inguru baterako deia da. Hiru Argentinatik datoz eta beste hiru-rak Euskal Herrikoak dira.

Deigarria egin zaidanez, Donostiako Koldo Mitxelena aretora hurbildu naiz jakin minez. Aretoa bete dago eta mahai ingururako gaia: "Egun, non daude larriki gaixo dauden presoek eskubideak?"

Mahaitik, Ventura Tome euskal preso politikoa kalera irtengo dela esanez hasten da bilera. Guztio txalo zaparrada batekin har-

tzen dugu albistea eta bilerak aurrera egin ahala adierazten digute kalean dela. Frantziako epaitegiak Ibon Iradi preso gaixoaren errekurtsioa biharamunean aztertuko duela eta Ventura bezala kalean izateko itzaropena desio diogu. Ezin ego kiago hasi zitekeen bilera eta aretoan gaudenok poztu egiten gara.

Gaiari heldu eta psikologian, psikoanalisian, medikuntzan, kazetaritzan, legegintzan adituan diren euskaldun eta argentinarrak arretaz entzuten diegu. Argentinatik A Casa Kolektiboko militanteak etorri zaizkigu eta hango diktadurak eragindako 30.000 desagertuek eragin dien egoeraren berri ematen digute. Diktaduratik bizirik ateratako militanteak dira eta gure artean goxo aurkitzen direla esan digute. Han

bezalaxe hemen ere, desagertuen hilobiak azaleratzen eta argitaratzen ari garela badakite eta elkarre ezberdinekin harreman zuzena dute. Frantzia eta Espainiako espetxeetan dituzten euskal preso politikoekin eskutitzak ezezik bisitak ere izaten dituzte eta ezagutza zuzena daukate. Hemengo Etxerat eta Jaiki Hadi elkarteekin ere berdin eta presoek senideekin ere beste horrenbeste.

Seiren esanak arretaz entzuten ditugu. Barruraino sartzen zaizkigun hitz tinko eta sendoak dira. Hamarkadetako (batek baino gehiagok 60 urteak ederki beteak ditu) militantiaren aberastasuna erakusten digute. Hitz egiten goxo eta leun ari zaizkigunez, oso erraza egiten zaigu beraiekin bat egitea. Hizlari eta en-

tzuleen arteko harreman naturala nabari da aretoan. Benetan merezi izan du etortzea.

Goiburuan elkartasuna hitza agertzen da. Eduki sakoneko hitz esanguratsua. Herrien arteko harremana sendotzen duena. Pertsona osatzeko bidean oso lagungarri dena. Guztion elkarbizitza hobetzeko laguntzaile bikaina.

Nahiz eta esaldi gehiago idatzi ditzakedan, lauren barnean diraute gainontzekoak. Beste behin, hitz horrek duen zabaltasuna ezagutzeko aukera izan dut.

Beraz, esker aunitz antolatzaileei eta jarrai dezagun Loiolako ekimenean eta Baionan egin den bezalaxe elkartasuna elikatzen.

Orkatz

Igandean, Kilometroak Orion

BERTAKO TALDEEN ETA JAI JASANGARRI BATEN ALDEKO APOSTUA EGIN DUTE ANTOLATZAILEEK

Gonbita egin digute jada; “Urriaren 5ean egun eder bat pasatzera etorri”. Oriotarrak igande honetan, urriaren 5ean milaka euskaltzale eta ikastola zaleei harrera egiteko prest eta irrikitan dira jada, antolatzaileek aurreko ostiralean Ikastolen Elkarteko egoitzan burutu zuten agerraldian adierazi zuten bezala. “Erria Txikota!” lemapean ospatuko den jaialdiko zehaztasunen informazioa eskaini zuten. Urte osoko herri-lanaren ostean, oriotarrei fruituak jasotzeko unea heldu zaiela adierazi eta urriaren 5eko jai, “etorkizuneko erronkak betetzeko hazi berria” izango dela ere gaineratu zuten.



Orioko Kilometroak jaialdia aurkezteko, antolatzaileek prentsurrekoa eskaini zuten iragan ostiralean.

Bertako taldeen aldeko apustua

5 gune nagusi izango ditu jaialdiak; ikastola, San Martin eta hondartza inguruak, eta autopista azpia eta Kiroldegi buelta lotuko dituen 5.632 metroko ibilbidea.

Bidean, ekitaldi mordoak; Skasti, Enkore, Anje Duhalde, Esne Beltza, Zea Mays, Willis Drummond, Gozategi edota Triki Ta Ke taldeen kontzertuak; Gipuzkoako 20 ikastolek parte hartuko duten Erronka ekimenaren bigarren edizioa; haurrentzako ikuskizunak;

indartua datorren eskaintza ibiltaria, hainbat animazio talderekin; jan edana... Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte, festa egun handia Orion.

Egitarauko eskaintzaren bi heren eskualdeko “ekoizpena” da. Eskualdeko eta bertako taldeen aldeko apustua egin nahi izan dute. “Jai Oriora ekartzeaz haratago, Oriotik erakitzearen ideia” sustatu nahi izan dute. Hala, ikastolako guneko eskaintza osoa herritik eraiki da. Gainerako guneetan ere, emanaldiren bat gutxienez bertakoa izango da.

Jai “jasangarria”

Urriaren 5ean Orion, “jai ahalik eta modurik jasangarrienean garatzeko ahalegina” egin nahi dute. Edalontzi berrerabilgarriak etxetik eramateko deia luzatu dute antolatzaileek. Edalontziok itzultzeko aukera egongo da Kilometroak egunean; euro baten, edo “Aukeran garbian edan” dioen txapa baten truke. Bestalde, egunean zehar banatuko diren jakiak ontzi konpostagarrietan banatuko dituzte, mahai tresneria barne.

Sortzaileei omenaldia

Ikastolako lehen belaunaldiko gurasoak eta Anjel Lertxundi omenduko ditu Orioko Kilometroak jaialdiak. Irekiera ekitaldian, jaialdiko sortzaile Josu Erguin eta Antonio Campos Orioko Herri Ikastolako Lehendakariak hartuko dute parte. Bestalde, Kilometroak lagunkoia delako proiektua sustatu dute Orion. Herriko adinduen istorio, esamolde eta bizipenekin, ibilbidean zehar ikusgai egongo diren 9 informazio panel osatu dituzte. www.kilometroak.net

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK



645417665
XABIER
Usurbil

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

WHEEL ACADEMY

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa · Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketa teknikoak · Hizkuntzak

629944690
Galtzaraqaña 1, behea USURBIL

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak



Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Egun osoan zehar, N-634 errepidea itxita egongo da Usurbil eta Zarautz artean

Igandean Orion ospatuko den Kilometroak-era joateko autoa etxean utzi eta autobus edota tren zerbitzuak baliatzeko deia luzatu dute jaialdiko antolatzaileek. Zarautzekin batera, Usurbil izango da Orioko Kilometroetara joateko lotune lanak egingo dituen udalerrria. Autoentzako aparkaleku izango dira Urbil merkatal gunea eta Belartza ingurua, eta baita Zarautz ere. Autoz dabilenak guneotan utzi beharko du ibilgailua eta hortik une oro autobus zerbitzuak izango dira Oriorantz, eta baita gero, Oriotik itzultzeko ere.

A8an, Orio sarrera itxita

Adi, N-634 itxita egongo baita Usurbil eta Zarautz artean. Honenbestez, urriaren 5ean autoa hartu behar baduzue, larrialdi egoerak salbu, ezin duzue baliatu Usurbil eta



Kilometroak-era garraio publikoan gerturatzea aholkatu dute antolatzaileek.

Aginagatik igarotzen den aipatu errepidea. Bide horretan, Urbil eta Belartzatik datozen autobusak baino ez dira igaroko, baita Lurraldebusen zerbitzuak ere. Oriorako joan etorria egiteko, Euskotrenek autobus eta tren zerbitzuak

indartuko ditu urriaren 5ean. Informazio gehiago: euskotren.es edo 902 543 210.

N-634 bakarrik ez, A-8 autopistari Zarautzko noranzkoan, Oriorako sarrera itxita egongo da baita, Kilometroak egunez, 08:30-20:30 artean.

Usurbil-Orio trenez

Goizeko 7:34an igaroko da Usurbildik Orio aldera joango den Kilometroak eguneko lehen tren zerbitzua. Goizeko 9:00ak arte, ordu erdiro izango dira trenak. 9:00etatik aurrera, ordubeteko tartean lau tren zerbitzu igaroko dira Oriorantz, eguerdiko 12:30ak arte. Hortik aurrera, ordu erdiko maiztasunarekin igaroko dira trenak.

Orio-Usurbil trenez

Oriotik Usurbil aldera ordu erdiro izango dira trenak arratsaldeko 17:50ak arte (zerbitzu berezi bakarra 12:48an). 17:50etik aurrera, tren zerbitzua indartuko dute. Ordubeteko tartean lautan irten go da trena Oriotik Usurbil aldera. Azkena, gaueko 22:45ean. Oharra: Euskotrenek Kilometroakerako joan-etorriko bidaia-txartel berezi bat sortu du. Egunean bertan, makinetan erosi ahal izango da.

2015eko Kilometroak, Usurbilen esku

Badator Orioko Kilometroak 2014, "eta gu ere bagoaz KMK 15 ekimena gorpuzten! Poliki-poliki KMK15 antolakuntzan murgiltzen hasiak gara, batzorde ezberdinak osatuz, urteko ekimenak zehaztuz eta beste hainbat urrats emanez", Usurbilgo Kilometroak 2015eko antolakuntza taldeetik berri eman dutenez.

Ez ahaztu, igande honetan, urriaren 5ean Usurbilek hartuko du 2015eko Kilometroak antolatzeko lekukoa, Orioko ikastolan egingo den ekitaldi batean. "Une horretatik aurrera, Udarregi Ikastolara eta Usurbilera igaroko delarik KMK15 antolatzeko aukera ederra. A ze irrika duguna lekuko hori esku artean

izateko!", antolatzaileek diotenez.

Laguntza behar da

Urtebete barru, milaka euskaltzaleren topagunean bihurtuko den udalerrri honetako prestaketa lanak hasiak dira aspaldi. Auzolana izango da antolatzaileen esanetan, datozen hileotan bideratu beharreko prestaketa lanen zutabe nagusia. Hainbat herritar animatu dira jada auzolanera. "Auzolan honen isla, orain arte KMK15en antolakuntzen islan laguntzeko izena eman duten guraso, ikasle, irakasle, herritar eta abarrak. Eskerrik asko eta biba zuek! Oraindik izena emateko aukera izan ez duzuenoi berriz, auzolan honetan parte hartzera bultzatu, bai zuei eta baita zuen in-

gurukoei ere", luzatu dute gonbita.

Kilometroak 15 antolatzeko hainbat lan talde osatu dira. Eta laguntza behar da. Une honetan, behar handienak arropa salmenta eta ekonomia batzordeetan daude. Taldeotan eta gainerakoetan parte hartzeko deia luzatzen zaie usurbildarrei. Izen emate inprimakia, udarregi.com atarian eskura dezakezue. Argibide eta informazio gehiagorako, hona hemen Udarregi Ikastolako idazkaritzako telefono zenbakia: 943 36 12 16.

Lehen bilera irekiak

Kilometroak 15 ekimenari buruzko informazio gehiago nahi baduzue, ekimena bera ezagutu, helburuak, funtzionamendua, sortu diren

batzordeen zeregina... Adi, lehen bilera irekiak deitu baitituzte urriaren 10 eta 11rako.

Hauexek dira hain zuzen, Usurbilgo Kilometroak 15-i loturiko lehen deialdiak:

Urriak 5, igandea

12:00 Orioko Kilometroak egunez, Usurbil eta Udarregi Ikastolaren lekuko hartzea, Orioko ikastolan burutuko den ekitaldian.

Urriak 10, ostirala

19:00 Kilometroak 15 Usurbilen: bilera informatiboa Potxoenean.

Urriak 11, larunbata

11:30 Kilometroak 15 Usurbilen: bilera informatiboa Potxoenean.

Euskaltegira, euskara ikasi edo hobetzeko

Asteazken honetan, urriaren lehen egunean abiatu du Etumeta-AEK euskaltegiak, 2014-15 ikasturte berria. Zumarte inguruan, irailean zehar izena eman duten ikasleen mugimendua sumatuko da aurrerantz. Matrikulazio

epeak ordea zabalik jarraitzen du. Hauxe ikasturte berrirako eskaintza: euskalduntze ikastaroak, autoikaskuntza, Mintzlagun... Argibide gehiagorako, hemen euskaltegiarekin hartu emanetan jartzeko bideak: euskaltegian (Nagusia, 43), telefo-

noz (607 609 379), emailaz (usurbil@aeek.org) edo web orrian (munterri.blogspot.com.es). "Euskara praktikoa" lemapean, euskara ikastera animatzen dute Etumeta-AEK euskaltegitik. Carolinak, Mikelek eta Anek egin duten moduan.

1- Nolatan hasi zinen euskaltegian?

2- "Euskara praktikoa", aurtengo matrikulazio kanpainako aldarria.

Zertarako da erabilgarria euskara ikasi edo hobetzea?

3- Nor animatuko zenuke euskaltegian izen ematera?

Carolina Muñoz

1-Duela lau urte heldu nintzen Euskal Herrira.

Hasieratik argi izan nuen euskara ikasi nahi nuela, leku batean integratzeko oinarrikoa baita bertako kultura integratzea. Heldu eta segituan hasi nintzen ikastaro bila. Kasualitatez, AEK-rekin harremanetan jarri nintzen.



Etorkinei zuzenduriko ikastaro bat hastear zela esan zidaten eta lekua bazela. Azkar batean hasi nintzen klaseekin Zumaian. Hasieran, hizkuntzak harridura handia eragin zidan, ezagutzen ditudan hizkuntzekin alderatuta oso ezberdina baita. Baina aldi berean, hasieratik irakaslea gu laguntzen asko ahalegintzen zen. Hizkuntza ikasteko zailtasunak izan arren, ondo sentitzen nintzen. Irakasleak pazientzia handia zuen, une oro asko animatzen gintuen. Gerora utzi beharra izan nuen, lan kontuengatik. Baina ahal izan dudanean berriz heldu diot euskara ikasteari. Oso garrantzitsua da leku batean egon, integratu, inguruan hitz egiten dena ulertu ahal izatea. Irakasleak gainera oso ondo prestatuak daude. Oso ondo lan egiten dute, ez bakarrik euskara irakasten dutelako, euskal kultura integratzen laguntzen dutelako baizik. Euskaltegira zoazenean, herritarren partetik berotasuna sentitzen duzu gainera.

2-Praktikoa denerako, eguneroko bizimodurako. Oraindik hastapenetan nago, baina ahal dudanean erosketak euskaraz egiten saiatzen naiz. Hemengo lagun gehienak euskaldunak dira. Taldean euskaraz hitz egiten da. Gutxi asko ia dena ulertzen dut. Oso praktikoa, lanean baita. Lanean ere euskaraz hitz egiten da eta nagusiari ulertu ahal diot.

3-Hona bizitzera datorren pertsona orori aholkatuko nioke euskaltegira joan eta euskara ikastea. Ezinbestekoa da. Gogoan dut, etxea alokatu zidan gizon asturiar batek nola esaten

zidan, hemen erdaraz ezin hobeto bizi zitekeela. Ez nuela inolako arazorik izango. Nik baietz, egia zela, baina bere jarrera ez nuen ulertzen. Grazia, bertako hizkuntza ikasi ahal izateak du. Hori da politena. Eta bertan integratu ahal izatea. Nik ez dut egon nahi leku batean, bertako kulturari bizkar emanda.

Mikel Rekondo

1-Garai bateko gau eskoletan, urte pare batean ibilia naiz.

Gerotik beste pare bat urtez ere bai. Gaur egun, edozein lanetan kurrikulumerako tituluak eskatzen dituzte, eta bigarren profila ateratzeko itzuli nintzen euskaltegira. Maila hobetzeko gogoia ere banuen, irakurtzeko eta idazteko ohiturarik ez baitut. Urte honetan irakurketa eta idazketa maila hobetzeko aukera handia izan dut. Baita ohitura hartzeko ere.

2-Hiztegi berria ikasteko, esaldiak hobeto garatzeko, euskaraz irakurri eta idazteko. Euskaldun zahar bezala, oso kutsatua nago erdararekin. Zenbait esaldi formetan erdarakadak sartzen ditut.

Ondo etorri zait euskaltegira joatea, esaldiak nola egiten diren jabetzeko. Egunerokoan hitz egiterakoan, ez zara jabetzen nola egiten diren. Horrek balio izan dit bai, konturatzeko nola egiten diren.

3-Denei aholkatuko nioke. Gaur egungo gazte gehienak, ikastoletatik datozenak ez dute agian hainbesteko beharrik. Gramatikalki oso ondo prestatuak daude. Baina bai beharko litzateke mintzapraktika, hizkuntza akademikoaz gain, kaleko hizkuntza ikasteko. Herri honetan gainera, udalak euskara ikasteko diru-laguntza handiak ematen ditu. Hala ere aukerak aprobetxatu behar dira.



Ane Agirre Alkain

1-Gaztetan Lasartan bizi nintzenean, urte batzuk egin nintzen euskaltegian, Lazkaoko barnetegian gero.

Nuen mailarekin moldatzen nintzen lanean. Duela lau urte ordea, bizitzari aldaketa handia ematea erabaki nuen. Egun nagoen lantokian, mugatua sentitzen nintzen. Esan nahi nuena askotan ezin nuen ondo esan. Orain haurrekin nago. Iruditzen zitzaidan euskara landu beharra nuela, errespetuagatik, bai umeei, hizkuntzari eta baita niri ere.

2-Hizkuntza azkenean hitz egin eta idazten dena da. Egun, lan askotan eskatzen dira perfilak. Asko joaten dira gehienbat perfila ateratzera. Ez dut hain argi ordea, barnertua ote dugun beharrezkoa dugula euskara, gure hizkuntza, gure herria dela. Ez dela titulu kontu bat. Hizkuntza ardatza dela kultura. Ezagutzen dut lantokian perfila eskatzen dioten jendea, gero lehen hitza bere lanpostuan erdaraz izaten da. Gure esku dago. Guk izan behar dugu kontzientzia, eta errespetua euskarari, dakiguna hobetzeko, erabiltzeko. Ez dakienak ikasteko. Kontzientzia pixka bat izan, non eta zertan nagoen, zer nahi dudana, eta zer konpromiso dudana inguruarekin. Zer egin duten arbasoek, zer nahi dudana utzi.

3-Ibiltzen nintzen inguruan nire euskararekin moldatzen nintzen. Baina jabetzen nintzen gaizki hitz egiten nuela. Ez nekien idazten. Bakoitzak du bere momentua. Baina edozein une ona da pausoa emateko. Bakoitzak jakingo du zergatik ematen dituen pausoa, baina pausoa eman behar ditugula bai. Aspaldi kanta bat bazen, "euskara zergatik ez?". Agian galdera ez da zergatik joan behar dudana euskaltegira, "zergatik ez zara joan behar?" baizik.





 **#lotsarikgabe**
praktikatu gurekin

usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia,
43 behea
20170 USURBIL

607 609 379
usurbil@aek.org



Izan zaitetz berbalagun, mintzalagun, mintzakide...
Izena emateko: www.praktikatu.org





garri berezia gehigarri musika & dantza
gehigarri berezia
 garri herri kirolak berezia gehigarri
 ezia kontzertuak gehigarri berezia gehi-
 ri hamaiketako gehigarri berezia
 garri berezia pilota gehigarri berezia
garri berezia gehigarri festival
 garri berezia estropadak berezia dj-ak
 pasa gehigarri berezia buruhandiak



2014 SAN PRAIXKUAK

gehigarri bere-
 gehiga
 gehigarri herri
 berezia kontze-
 garri hamaik
 gehigarri bere-
 berezia gehig
 garri festival g
 berezia gehiga



Igande honetan, urteko desafioa

Zuetako asko joango zarete igande honetan Orion ospatuko den Kilo metroak jaialdira. Bueltatzeko ez ahaztu; autobusari Aginagan gelditzeko esan. San Praixkuak baitira eta desafio itzela prestatu dute urriaren 5erako; aginagarrek aurrez aurre jarriko dituen herri kirol saioa. Belaunaldi ezberdinetako emakume eta gizon, bi taldeetan banatuta; sagar eta lokotsak biltzen, zaku lasterketan, artoa aletzen, txingak garraiatzen...

Erakustaldi bikaina izango dela iragarri dute Jai Batzordeetik. "Animatu, arratsalde pasa polita egiteko aukera izango duzue", luzatu dute gonbita. Hitzordua, igande arratsaldeko 18:00etan hasita, Aginagako Ariztitxo pilotalekuan.

"Agiña Goikoa vs Agiña Behekoa"

Tradizio luzea dute herri kirolek Aginagako San Praixkuetan. Hamarkadetakoa bai behintzat. Orain aginagarrek dira elkarren artean lehiatzen direnak. Iragan ez oso urrunean ordea, "goiko" eta "beheko" herritarrek lehiatzen ziren. Landa eremuan bizi ziren aginagarrek eta herri guneak aurrez aurre. Ikusteakoa izango zen. Antza, bazuten batzuk besteak desafiatzeko nahikoa arrazoi. Elkarren arteko lehia, garai hartan jaietako gune izaten zen Eskola Txiki aurreko plazara eramaten zuten. Egun frontoia kokatua dagoen gunera hain zuzen. Ariztitxo pilotalekua eraiki ostean ordea, urteetako tradizioa eten zen. Ez askorako. Denbora gutxira berreskuratu baitzuten. Gaur arte.

Profesionalak, herritarrekin

Azken urteotan, hitzordua



Elkarren artean lehiatu arren, elkarlanean prestatuko dute desafioa.

BERRIKUNTZA

"Aita ponteko bana izango du talde bakoitzak; Pellejero eta Rekondo aizkolari profesional gazteak"

indartzearen aldeko apustua egin du Jai Batzordeak. Egun, gazte, heldu, emakumez nahiz gizon, denak aginagarrek, aritzen dira herri kirolen lehian. 2014ko edizioan ordea, ez dira bakarrik arituko. Aurtengoan

berrikuntza nagusi bat txertatu dute. Aita ponteko bana izango du lehiakide talde bakoitzak; Pellejero eta Rekondo aizkolari profesional gazteak. Proba herrikoiki eta aldi berean profesionala izango da beraz, igande honetakoa. Eta parte hartzailea. Aginagarrek guztia ematen ikusiko baititugu herri kirol-tan. Proba antolatzen ere herritarrek aritu dira, baita esate baterako, probarako materiala hornitze lanetan ere. Aginagarrek elkarren artean lehiatu arren, elkarlanean prestatu hitzordua dugu urriaren 5ekoa.

Jan edana

Aipatu moduan, Jai Batzordeak herri kirolen saioa indartzearen aldeko apustua egin dute azken urteotan. Iaz ekitaldi berri bat erantsi zioten gainera, aginagarren arteko lehia saioari. Patata tortila txapelketa antolatu zuten. Ekimenaren harrera ikusita, esperientzia errepikatuko dute aurtan. Herri kirolen ostean beraz, patata tortila onena egiteko txapelketa. Eta gero, jakiak dastatzeko aukera izango dute bertaraten diren guztiek. Orioko Kilo metroak egunetik bueltan badakizue; jai giroak Aginagan jarraituko du.

Herri kirol desafioa, 18:00etan frontoian

- Eguna: urriak 5, igandea.
- Ordua: 18:00.
- Tokia: Aginagako Ariztitxo pilotalekua.
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Joaldunekin oilasko biltzera

Aginagan tradizio luzea du oilasko biltzeko ohiturak. Eta ikusmina ere sortu izan du. Iaz, Iparraldeko bisitariak izan zituzten Aginagan. Aurtan, Bizkai-ko zantantzarrak datoz. Urriaren 11n izango da, San Praixkuetako azken egunean.

Ez dute goizeko 6:00etan hasiko den itzuli osoa egingo. Baina herri gune inguruak zeharkatzeko asmoa dute. Eguerdiko 12:00ak inguruan Mapiletik abiatuko dira oilasko biltzaile eta zantantzarrak, denak batera. Eguerdiko 14:00ak aldera, frontoi ingurura helduko



Urriaren 11n irtengo dira oilasko biltzaileak.

direla aurreikusten dute. Joaldun bizkaitarrak izango ditugu, eta talde bereko kantariak datoz baita, la-

runbat honetan, 21:00etatik aurrera Aginagako frontoian ospatuko den San Praixkuetako herri afarira.

Aurten bai, emakumeak ere arraunean



Hondarriak irabazi zuen iaz. Ea aurten nor gailentzen den!

Arraun denboraldia amaitu dela uste bazenuten, oker zineten. Aurten ere Aginagan jokatuko baita, urteko azken estropada. San Praixkuen azken egunean, urriaren 11n izango da, arratsaldeko 16:00etan hasita. Gipuzkoako kosta parteko arraun taldeak Orian lehiatuko dira, aginagarren bandera preziatua etxeratzeko asmotan; gizonetzkoen 6 talde eta emakumezkoen lau talde guztira.

Iaz, mutilek bakarrik parte hartu zuten Aginagako trainerila txapelketan. Aurtengoan, duela bi urte bezala, neskek ere bai, nahiz Aginagan emakumeen taldea osatzerik ez duten lortu. "Ea datorren urtean emakumeen

taldea osatzea lortzen dugun!", adierazi du Jai Batzordeak. Mutiletan bai; aginagarren taldea lehiatuko da aurten ere. Bandera urdina etxean geratuko den edo ez, urriaren 11n jakingo da.

Urriak 11, larunbata

Ordua: 16:00.

Tokia: Ori ibaia.

II. Emakumezkoen Trainerila Txapelketa

Partaideak: Orio, Hibaika, San Juan eta Zumaia.

VIII. Gizonetzkoen Trainerila Txapelketa

Partaideak: Orio, Hondarribia, San Pedro, Zarautz, Getaria eta Aginaga.

Afarietarako txartelak salgai

Herri eta bertso-afari musikatu bana ospatuko dira Aginagako jaiotan. Herri afaria, San Praixku Egunez, urriaren 4an, larunbata, 21:00etatik aurrera frontoian. Bizkaiko lagun talde batek eta Aginagako aurreko urteetako jaietako irudien proiektzioak girotuko duten otordurako txartelak aurrez erosi beharko dira. Helduenak 20 eurotan eta haurrenak 12 eurotan egongo dira salgai, Aitzagan, eta Aginagako Arrate eta Sekañan.

Hiru guneotan eskuratu ahalko dira baita, urriaren 10ean, 21:00etatik aurrera Eliza Zaharrean ospatuko den bertso afari musikaturako txartelak. 15 eurotan jarriko dituzte salgai. Jon Martin, Arkaitz Oiartzabal "Xamoa", Alaia Mar-



Herri afarirako zein bertso afarirako txartelak Aginagako Arraten zein Sekañan, eta Usurbilgo Aitzagan.

tin eta Mantxi bertsoarietako parte hartuko dute. Haritz Casabal arituko da gai jartzaile lanetan. Eta musikari lanetan, Eneko Sierra, Ixak Arruti eta Gari Otamendi.

Aginaga urdinez janzteko deia

"Aurtengoan ere gonbidatu egiten zaituztegu zuen balkoiak eta zuen buruak urdinez janztera. Gure herriko arraunlari taldeari bultzada guztia emateko eta bandera etxean gera dadin", animatzen dituzte herritarrek, Jai Batzordetik. Etxetako balkoi eta leiho bat baino gehiago egoki atonduta izango dira honez gero. Antolatzailleak ere jaietarako prest dira. "Agiñako gazteak kaskagorrek gara eta hainbat arazo bidean aurkitu arren, ez dugu etsitzen eta gogoz eta ilusioz antolatu ditugu aurtengoan ere herriko jaiak", berri eman dute argitara emandako egitarauan.

Aginagarren bilgune izango dira San Praixkuak. Baina aurten ere bisitariak izango dituzte. Batetik, Bizkaiko lagun talde bat dator larunbat honetako herri afarira, abestera. Urriaren 11n ospatuko den Oilasko Biltzaileen Eguneko kalejira bestalde, zanpantzar talde batek girotuko du. Hitzordu hauetara eta gainerako ekitaldietara gerturatzeko gonbita luzatzen dute antolatzailleak: "Egin ditzagun guztion artean ahaztezinak aurtengo jaiak. Ospatu, gozatu eta parte hartu!". Urteotan herri giroko jai herrikoiak mantentzen lagundu duten guztiei eskerrak heralazi nahi dizkiete Jai Batzordetik.

Gautxorientzat, musika eskaintza zabala

Herriko taldeak, erromeria, dj-ak aukeraturiko dantzarako denetarikoa abestiak... Musika eskaintza zabala hastear ditugun San Praixkuetan. Arto2xar, Desegin, Can't Explain eta Karaokea Eliza Zaharrean ostiral gau honetan. Larunbateko herri afariaren ostean, Ingo al deu. Beste erromeria talde batek, Itzartukoak datoz urriaren 10ean. Musikaz blai datozkigu Aginagako San Praixkuetako parranda gauak. Parranda gau nagusia halere, jaietako azken egunerako erreserbatu du Jai Batzordeak. Dj gaua urriaren 11n; Abiba lehenik frontoian, Aros goizaldean Eliza Zaharrean.



Abiba Dj urriaren 11n arituko da.

AGINAGA ESKOLAKO
IKASLE ETA IRAKASLEEK
JAI ZORIONTSUAK OPA
DIZKIZUETE!



**ONDO PASA
SAN PRAIXKUAK!**

E/S AGINAGA
N- 634 P.K 7,6 AGINAGA
www.gureakzerbitzuak.com



Angulas Mayo, s.l.

AGINAGAKO ANGULAK
BEREZKO BIBEROAK



Toki Berri, z/g
Telf: 943 36 15 94
Faxa: 943 36 25 73
AGINAGA

ONDO PASA SAN PRAIXKUAK!



José María Larburu
Garraiatzailea

garraioak
larburu
guarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA

 943 36 17 35 · 656 791 277

Bi asteburutan hamaika ekitaldi

Urriak 2, osteguna

18:00 Txupinazoa.

18:30 Ezinduen pala partida.

19:00 XII. Gizonezkoen pala finala.

Urriak 3, ostirala

Ez Daudenen Eguna

21:00 XII. Eskuzko Pilota finala.

00:00 Euskal Preso eta Iheslari politikoak etxeratzearen aldeko brindisa.

Ondoren, kontzertuak Eliza Zaharreen: Arto2xar, Desegin, Can't Explain eta Karaokea.

Urriak 4, larunbata

San Praixku Eguna

09:00 Tiro platoa.

11:00 Meza Nagusia bertsolariekin.

Ondoren, jubilatuen hamaike-tako bikaina Aginaga Sagardotegian.

16:00 XXXIV. Mus Txapelketa herrikoia.

18:30 Gorritiren animaliak.

21:00 Herri afaria frontoian, Bizkaiko lagunek alaitua.

Bitartean, herriko jaietako aspaldiko argazki eta bideoekin emanaldi polit eta barregarria.

01:00 Dantzaldia Ingo Al Deu taldearen eskutik. Hortik aurrera, gorputzak eman dezakeena! Afi, afi!

Urriak 5, igandea

Gora Herria Eguna!

18:00 Herri kirol erakustaldia herrikide eta aizkolari profesionalen eskutik: Pellejero eta Rekondo.

Ondoren, II. Patata Tortilla txapelketa herrikoia eta pinxopotea frontoian.

Bitartean, buruhandiek eta trikitilariak giroa alaituko digute. Aire Aire!!!

Urriak 10, ostirala

Umeen Eguna

10:00 Umeen jolasak frontoian.

13:00 Haurrentzako bazkari goxo-goxoa indarberritzeko.

17:00 Puzgarriak plazan.



Aginagako Eskola Txikian jai egingo dute urriaren 10ean, Umeen Eguna ospatuko dute-eta.

Ondoren, primerako txokolata-da eta buruhandi bizi-biziak. Hasi korrika!

21:00 Bertso afari musikatua Eliza Zaharreen. Bertsolariak: Jon Martin, Arkaitz Oartzabal "Xamoa", Alaia Martin eta Mantxi.

Gitarrak: Eneko Sierra eta Ixak Arruti.

Biolina: Gari Otamendi.

Gai jartzailea: Haritz Casabal.

Ondoren, dantzaldia Eliza Zaharreen Itzartu taldearekin.

Urriak 11, larunbata

Oilasko Biltzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera bazterrak alaitzera. Zahar, heldu eta gazte ondo gosalduta eta txukun-txukun.

Eguerdian, joaldunekin batera Mapildik plazara abiatuko dira oilasko biltzaileak.

16:00 II. Emakumezkoen trainerila txapelketa eta VIII. Gizonezkoen trainerila txapelketa.

19:00 Sardina eta sagardo banaketa herriko plazan.

Bitartean, XXXII. Toka Txapelketa herrikoia.

00:30 ABIBA Diskofesta frontoian.

04:30 Aros DJ Eliza Zaharreen.

Berehala eguna argitu duela? Guri Bost!

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Urriaren 10ean, bertso afari musikatua

21:00 Bertso afari musikatua Eliza Zaharreen. Bertsolariak: Jon Martin, Arkaitz Oartzabal "Xamoa", Alaia Martin eta Mantxi.

Gitarrak: Eneko Sierra eta Ixak Arruti.

Biolina: Gari Otamendi.

Gai jartzailea: Haritz Casabal.

Ondoren, dantzaldia Eliza Zaharreen Itzartu taldearekin.

Txartelak salgai: Aitzagan, Aginagako Arrate eta Sekañan.

Prezioa: 15 euro.



Arkaitz Oartzabal "Xamoa", Mantxi, Alaia Martin eta Jon Martin (argazkian) anai-arrebak arituko dira kantuan.

Eiza denda

Ondo pasa
SAN PRAIXKUAK!

Erribera 8, Aginaga
943 36 12 06



Ondo pasa
San Praixkuak!!

Mutiozabal Etxea, 17 zenb.
20170 AGINAGA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 361 081
Faxa: 943 365 704
www.atxega.com
atxega@atxega.com

ETXEBESTE Jatetxea

Eguneko
bazkariak

ondo ibili jaietan !!

 943 36 27 40

Ondo pasa
San Praixkuetan!



KARABANAK



NAUTIKA

KARABANAK

Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24h hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA

Salmenta, konponketak eta mantenua
24h hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.norria.nautika.com - info@norria.nautika.com

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City
- * Aginagako Arrate taberna
- * Zubietako Alamandegi taberna

Edo deskargatu ezazu www.noaua.com-etik!

tren eta autobus

noaua

ordutegia 14/15



aginaga

San Praixku zoriontsuak opa dizkizuegu!!!

Sagardotegia



URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA TXOTXETIK!

Berezitasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfn-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

HOTEL BERRIA AGINAGAN

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WiFi, bainugela
konpletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarritz (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.
Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat leku ezinhobea.

Tfn-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *



Batukada feminista, emakumeen bilgune

Elkar ezagutzeko, nor bere bizi esperientziak partekatzeko, egoteko, arnas bertetzeko, ondo pasatzeko eta zergatik ez, baita musikari gisa aritzeko ere. Askorako ematen du Zumarten sortu den emakumeen topagune berriak: batukada feminista taldeak. Aurreko ikasturtean proba moduan abiatu zuten esperientziak izandako harrera ezin hobeari, jarraipena ematea erabaki dute. Larunbatean hasiko dituzte saioak Zumarten. Ikasturte berria hasi bezpera hauetan, bilguneke bi kideekin bildu gara.

Batukada feminista taldeaz ari garenean, zertaz ari gara?

Ilazki Gainza: Batukada feminista, alde batetik Parekidetasun Saitetik egiten den ekintza edo ikastaroa da, emakumeentzat bakarrik. Gizonezkoena ere balitz, mistoa litzateke. Helburua gehienbat, herriko adin guztietako emakumeak bildu ahal izateko espazioa sortzea da. Musika ikasi edo hori hari bezala hartuta, emakumeek elkartzeko gune bat izatea. Egunerokotasunetik atera eta ondo pasatzeko. Bereziki gustatu zait, izan dugulako aukera adin ezberdinetakoak bilitzeko; gazteak, helduagoak direnak...

Batukada taldearen osaera bitartekoa da beraz, ez helburua. Zer barne lanketa burutu duzue orain arte?

Jugatx Agirre: Saioak hasten ditugunean, lehenbiziko galdera da ia zer moduz aurkitzen garen. Eguneroko bizimoduaz hitz egiten dugu. Normalean gero beroketa ariketak egiten ditugu eta jarraian batukada jotzen dugu, irakasleak emandako pautak segituz. Amaitzeko, erlaxazioa eta berriro ia nola sentitzen garen. Normalean nahiko nekatuta joaten gara, baina gero energia askorekin ateratzen gara.

Taldeak zer nola eboluzionatu du?

I.G.: Hasieratik ez duzu epaiaren beldurrik. Hasieratik esan ziguten aske ginela, lasai egoteko, norbaitek ezin bazuen edo ez bazuen joan nahi lasai egoteko, gure espazioa zela. Horrek eragin du guk konfiantza izatea eta bakoitzak ahal duena egiten du. Garrantzitsuena lasai sentitzea da. Hasieran eta bukaeran galdetzea nola sentitzen garen, hori da ikusteko segurtasuneko leku horrek, nola aldatzen duen norbere animua.

Ikasturte bat egin duzue Zumarten. Zer moduzko esperientzia izan da zuentzat?

J.A.: Positiboa izan da. Talde polita osatu dugu, adin ezberdinetako jendea zegoen. Batukadaren aitzakia egongo ez balitz, gure artean ez genuen harremanik izango. Hori izan da polita, adin ezberdinetako jende ezberdina elkartzea.



Larunbat honetan hasiko da batukada taldea entsetzen.

ILAZKI GAINZA

“Helburua gehien bat, herriko adin guztietako emakumeak bildu ahal izateko espazioa sortzea da”

Plazara ere atera zineten aurreko ikasturtean. Nolakoa izan zen esperientzia?

I.G.: Kosta zitzaigun. Zumarten hain gusturaginen, goazen herrira esatean, bi klaseren ostean, jendaurrean emanaldia nola eskainiko genuen genion. Ez gaude ohituta horretara. Baina kalera atera eta bizilaguna, ama ikusten duzu. Esperientzia polita izan da kalera ateratzea, beldur guztiak alboratzen saiatzea eta bakoitzak ahal duena egitea. Gu gustura egon ginen. Indartze bide horretan, kalera ateratzea ere garrantzitsua izan da.

Batukada feminista taldea emakumeentzat. Zergatik ez gizonezkoentzat?

I.G.: Gizonezkoen batukada bat ere egin liteke. Sortu liteke batukada misto bat, gizonezkoena. Inork ez du esan beste talderik sortu ezin denik. Batukada feministaren kasuan, berez musika aitzakia da. Garrantzitsuena ez da batukada talde on bat osatzea, nahiz halakoa aterako balitz, primerakoa litzatekeen. Gehiago da ordea elkar-tu, konfiantza hartu, indarra hartu eta kalean jotzeko gai izatea. Ekimena horregatik dator Parekidetasun Saitetik. Bestela Kulturatik etorriko litzateke proposamena.

J.A.: Emakumeak elkartzeko aitzakia bat da. Azkenean, batukada bide bat da. Aitzakia bat.

Ikasturte berria, larunbatetik aurrera

Urriak 4 eta 18, azaroak 15 eta 29, eta abenduak 13. Orduetgia: 11:00-13:00. Tokia: Zumarte Musika Eskola. Antolatzailea: Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila. 943 377 110 edo parekidetasuna@usurbil.net

Urriaren 12an, Rolf Müllerren organo kontzertua

Alemaniar organo jolearen emanaldia, urriaren 12an, iluntzeko 20:00etatik aurrera Salvatore Parrokian. Usurbilgo Organogaren Lagunak taldeak antolaturiko hitzordurako sarrera doan. Kontzertuko programa: Johann Sebastian Bach (1685-1750), Felix Mendelssohn (1809-1847), Felix Alexandre Guilment eta Rolf Müller (*1972) musikarien konposaketak.



Kontzertua Salvatore parrokian izango da, 20:00etatik aurrera.

Dantza Taldeen ordutegiak finkatu dira

Talde batzuk Udaregi Ikastolako erdiko aretoan bilduko dira, eta gainerakoak, Oiardo Kirolegiko gune berrian:

Haurrak:

- LH1: ostiraletan 16:30-17:30
- LH2-3: asteartetan 18:00-19:00
- LH4: ostiraletan 18:00-19:00
- LH5-6: ostiraletan 19:00-20:00
- DBH: ostiraletan 17:00-18:30 (Udaregi Ikastolan)

Helduak:

- Talde tradizionala: astelehenetan 18:00-19:30
- Talde garaikidea: astelehenetan 19:30-21:00 (Udaregi Ikastolan)
- Erromeria taldea: asteazkenetan 19:30-21:00 (Udaregi Ikastolan)
- Saloi dantzak (Xabier Otamendi irakaslearekin): ostegunetan 19:00-20:30

Informazioa: dantzataldea@usurbil.com

Urriaren 8an amaituko da Valderejoko irteerarako izen-ematea



19 kilometro ditu ibilbideak eta 5 ordutan egitea aurreikusitakoak. Argazkia: Felix Aizpurua (artxibokoa).

Urriaren 12an, goizeko 7:00etan Oiardo Kiroldegitik autobusez abiatuta, "Lalastratik Herranera mendi ibilbidea egiteko asmoz. Igoko dugun mendia; Recuenco (1.240 mt.). Ibilbideak 19 km ditu eta 5 ordutan egitea aurreikusten da", antolatzaileek aurreratu dutenez.

Irteerarako izen ematea zabaldu du jada Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak. Urriaren 8a baino lehen egin behar dira ordainketak mendizaleen bilguneak Kutxabank-en duen kontu zenbaki honetan: 2095 5069 07 1068489805. Hauek dira prezioak:

■ Andatzako bazkideek: 12 euro.

■ Gainontzeko federatuak: 15 euro.

■ Gainontzekoak: 20 euro.

Adi txangoari begira Andatzako ohar hauei:

■ Apuntatzerakoan, izena, bi abizen eta NAN zenbakia eman behar dira.

■ Valderejoko parke naturalaren ibilaldian parte hartzeko beharrezkoa da istripuen aseguru edukitzea.

■ Federatuak ez direnentzako, Andatza M.K.T.-k bideratuko du aseguru.

■ Plaza mugatuak. Lehen tasuna Andatza M.K.T.-koek dute.

Informazioa: www.andatza.com

Eskuzko zein palako finalak San Praixku jaietan

Eskuzko pilota finala urriaren 3an jokatu da, ostiralarekin. 21:00etan hasiko da finala. Gizonen pala finala bezperan hasiko da, urriaren 2an osteguna, arratsaldeko 19:00etan. Ezinduen pala partida ere iragarri dute Aginagan. Pala txapelketako finalaren aurretik egingo da ezinduen erakustaldia.

Futbola Haranen

Urriak 4, larunbata

11:00 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Ostadar S.K.T. "B"

16:30 Senior mutilak, Ohorezko

Maila: Usurbil FT-Aloña Mendi K.E.

Eskubaloitako partidak Oiardo kiroldegian

Urriak 4, larunbata

10:00 Infantil neskek, lagunartekoa:

Udarregi B Usurbil-Ereintza

11:15 Infantil neskek, lagunartekoa:

Udarregi A Usurbil-Ereintza

12:30 Infantil mutilak, lagunartekoa:

Udarregi Usurbil- Pulpo K.E.

17:30 Kadete neskek:

Usurbil K.E. "C"-Carpinteria Baskongadas

19:00 Jubenil neskek:

Usurbil K.E.-Eibar Eskubaloia "A"

Urriak 5, igandea

9:15 Kadete neskek: Usurbil K.E. "A"-Eibar Eskubaloia

10:45 Kadete mutilak: Usurbil K.E.-Caribe Berri Txiki

Lehen Nazionalekoak, Eibarrera

Senior mutilek estreinatu berri duten mailari dagokion datorren jardunaldia Eibarren jokatu dute. Larunbat honetan, 18:00etatik aurrera, Usurbil K.E.-tik adierazi dutenez, "iaz Zilarrezko Ohorezko Mailara igoera jokatu zuen Eibar Eskubaloia taldearen aurka, J.D. Arrate desagertuaren oinordekoaren aurka".



Larunbat honetan, 18:00etan.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

300etik gora saritu Usurbil Cup amaieran



Sari banaketaren amaieran, familia argazkia atera zuten Mikel Laboa plazan.

Azer nolako haur eta guraso festa zegoen, aurreko igande arratsaldean frontoiaren bueltan. Ez zen gutxiagorako. 34 talde eta 350 jokalarik baitziren guztira. Usurbil Cup txapelketari buruz ari gara. Irailaren 28an ospatu zen amaiera festa, goizean eta bazkalostean jokaturiko azken partida eta sari banaketa ekitaldiarekin.

Usurbil FT-k asko mimatzen duen hitzordua da Usurbil Cup-en amaiera. Haurren oso gustukoa, herrian harrera ezin hobea duena. Horren erakusgarri, jokalarik eta taldeetako arduradunei txalo artean, futbol izar onenen pareko ongi etorria egin zirela frontoian. Eskuzabala den sari banaketa hasi zen segidan. Inork ez baitu esku hutsik amaitzen Usurbil Cup, eta aurtengo edizioa ez da salbuespena izan. Usurbil FTren

USURBIL CUP, IRUDITAN

**“Sarituen argazkiak
www.noaua.com atariko
Argazkitegia aurkituko
dituzue”**

kamisetak opari denentzat, eta irabazleentzat garaikurrak banatu zituzten antolatzaileek. Sarituen argazkiak, noaua.com atariko Argazkitegia dituzue ikusgai.

Aipatzekoa, sariak banatzeko antolatzaileek egokituriko frontoiko txokoan, jarrera egokiak sustatzeko aurten burutu duten ekimen berezia islatu nahi izan dutela. Irailaren 5ean egin zuten Usurbil Cup-en aurkezpen ekitaldian, jokalarik taldeak jarrera egokiak sustatzeko kartelak landu zituzten. Kartelok txapelketan zehar eta igandeko sari

banaketan ere ikusgai jarri zituzten.

Eta amaieran, urteroko familia argazki erraldoia atera zuten Zumetaren mural parean, Mikel Laboa plazan. Festa giroan ospatu nahi izan dute sari banaketa ekitaldia. Burunda dj ibili da gero, dantza giroa jartzen frontoian.

Errifa zozketa

Usurbil Cup-eko sari banaketa ekitaldiaren baitan, Usurbil FTkoek azken asteotan saldutako errifin zozketa ere egin zuten. Hona hemen zenbaki sarituak:

- Bi lagunentzako otordua Artzabal jatetxean: 2.520.
- 3 kilo txuleta, Otar Goxo saltokiaren eskutik: 5.296.
- Mariskada eder bat, Bruño etxe-koen partetik: 2.885.
- Realak ikusteko bi sarrera: 0.353.

Zubieta, finalerdiak kanpo

Endika Abril errebotetako txapelketako finalerdietan, Zubieta Luzaz Gazte taldekoen aurkako neurketa galdu zuen. 6-13 azken emaitza. Honenbestez, zubietarrak ez dira igande honetan, urriaren 5ean, 11:00etatik aurrera Oartzunen ospatuko den finalean izango. Luzaz Gazte eta Baigorri lehiatuko dira txapelketako azken hitzorduan.

Yoga kiroldegian

Oiaro kiroldegian yoga ikastaroaren eskaintza zabalagoa izango da aurten: asteartero 9:00etan, 15:30ean eta 19:00etan (asterterre eta ostegunetan).

TAXI
24 h
USURBILEN

677 37 34 66] Joxe
943 36 21 78] Etxabe

Otar-Goxo
El ikasgaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Agenda iraila

3 ostirala

■ San Praixku jaiak Aginagan. Ikus 14 or.

4 larunbata

■ San Praixku jaiak Aginagan. Ikus 14 or.
 ■ Hiria Antolatzeko Plan Orokorren parte hartze prozesua. 10:00etan Po-txoenean.

5 igandea

■ San Praixku jaiak Aginagan. Ikus 14 or.
 ■ 80 urte betetzen dituzten herritarrei omenaldia. 12:00etan meza, 14:00etan bazkaria Atxegan.

Garraio publikoan noranahi iristeko moduko argitalpena

EuskoTren, Lurraldebus, TSST edota Usurbilgo bus-taxia zenbatero, noiz eta nondik igarotzen den jakiteko, argitalpen egokia da "2014-2015 tren-bus ordutegia", NOAUA!rekin batera asteon argitara eman duguna. Informazio hau guztia, urtero moduan, poltsikoan eramateko moduko tamainan jaso eta inprimatu da. Oraindik jaso ez edota ordutegi gehiago behar dituzue-nok, NOAUA!-ko egoitzan eskura ditzakezue edota herriko beste gune zein saltokietan.

Ordutegi gehiagoren premiarik bazu, udaletxeko erregistroan, kiroldegian eta NOAUA!n aurkituko dituzu gehiago. Baita honako saltokietan ere: Eroski City saltokian, Saizarren, Aginagako Arrate egoitzan eta Zubietako Alaman-degi tabernan.

Artelan erakusketa Artzabalen

Aurelio Noguera Parra eta Sarai Iturralde Carril bikotearen eta euren bi seme Jairo eta Igorren artelanak ikusgai izango dira, aza-roaren erdialdera bitarte. Artelanok ikusgai bakarrik ez, salgai izango dira.



Poltsikoan eramateko modukoa da. Ale gehiago eskuratzeko aukera dago NOAUA!n bertan, udaletxean, kiroldegian eta hainbat saltokitan.

Afrikar dantza mandingak

Asteazken arratsaldetan, 19:00etatik 21:00etara Usurbilgo Gaztetxean. Prezioa, hilean 28 euro. Izena emateko deitu 627 285 904 telefonora edo idatzi email bat, usurbilgo-gaztetxea@gmail.com helbidera.

Datozenak

Urriaren 12an, Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna

Bidezidor eta bide ezberdinak ditugu (bost ibilbide ezberdin daude aukeran), landako paisaiatik barrena paseoz gozatzeko, beldiari eta basoak zeharkatuz eta baserri, basiliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz.

Usurbilen eta Buruntzaldeko gainontzeko herrietan ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude, bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zuinak. Seinale horiek guztiak udalerrri bakoitzaren identifikazio-koloreak aintzat hartuz ipinita daude (Lasarte-Oria: urre zaharra, Urnieta: berdea, Usurbil: laranja eta Andoain: urdina); hala, seinale bat bidean ikustean, zein ibilbidetan gauden jakin dezagun.

Urtero ibilaldi bat antolatzen da eta aurtengoa zazpigarren edizioa izango da. Urriaren 12an ospatuko da. Datorren astean emango ditugu xehetasun gehiago.



www.noaua.com
 USURBILGO ATARIA

txirriStra
 TABERNA

-Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN



VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



USURBIL
oraina da geroa

Hiria Antolatzeko
Plan Orokorraren
Parte-hartze prozesua



www.usurbilorainadageroa.com

Etorkizuneko Usurbil marraztera goaz ZATOZ ETA PARTE HARTU

AGENDA

Egunero Usurbilgo errealitatearen azterketa
eta etorkizuneko eronkak aurreikustea

Bilera guztiak
19:00etan
izango dira.

MUGIKORTASUNA ETA
INGURUMENA (Potxoenea)

urriak
6

JARDUERA EKONOMIKOAK, KOMERTZIOA
ETA NEKAZARITZA (Potxoenea)

urriak
7

EKIPAMENDUAK, ZERBITZUAK
ETA AZPIEGITURAK (Potxoenea)

urriak
8

LURRALDE ANTOLAKETA (Potxoenea)

urriak
9



*Nolako
Usurbil
nahi duzue
etorkizunear?*



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi.eurkainet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Ataldu pol. ataldu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Teléfono
693 059 392

e-mail:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**ESKAIOLA
PLADUR**

Joxean Elorza - USURBIL
699426042



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**JOSEBA
ARANGUREN**
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

**Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza**

Josetxo Ikatzeta

687 951 225

GureUr
UR JARIOEN DETEKZIOA

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465

Pol. Ind Benta - Aldea 6 • 20270 Ancoeta
guregurur@gmail.com • http://deteccionesdelugadeagua.com

**Zuri
Arrain**
iturgintza

Pol. Ind. Benta - Aldea 6 • 20270 Ancoeta
TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarainiturgintza@gmail.com



**Antonio
URRUZOLA**
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Imanol
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59
628 883 943

Puntapax, 3 - 3.8
20170 USURBIL



ANOBGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

URPI Leihoak
urpileihoak@gmail.com

943 50 80 95 • 688 81 93 33

Nagusio, 10 Traserro • 20170 Usurbil (GIJUZKOP)